

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

1330

AGINDUA, 2026ko martxoaren 13koa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, zeinak aldatzen baitu balorazio-batzordearen osaera Euskal Autonomia Erkidegoko Espetxe Administrazioako Fakultatiboen Goi mailako Kidegoko eta Espetxe Administrazioako Kidego Teknikoko eskaletako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak (berariazko osagarria: III-B, III-C, IV-A, IV-B eta IV-C) betetzeko lehiaketa orokorrean.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren agindu bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Espetxe Administrazioako kidego eta eskaletako funtzionarioentzat gordeta dauden lanpostuak betetzeko lehiaketa orokorrak deitu dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko Espetxe Administrazioako Fakultatiboen Goi mailako Kidegoko eta Espetxe Administrazioako Kidego Teknikoko eskaletako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak (berariazko osagarria: III-B, III-C, IV-A, IV-B eta IV-C) betetzeko lehiaketa orokorraren balorazio-batzordeko presidentea izateko izendatutako pertsonak justifikatu egin du ezingo duela horretan parte hartu. Horrenbestez, beste pertsona bat izendatu da.

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeak VIII. tituluaren II. kapituluaren lanpostuak lehiaketa bidez hornitzeari buruz ezarritakoarekin bat etorritik, eta lege horren 18.2.t) artikulua bidez emandako eskudantziak baliatuz –Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 3.3.f) artikuluan xedatuari dagokionez–, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Miriam Berasategui Gurruchaga izendatzea presidentea Euskal Autonomia Erkidegoko Espetxe Administrazioako Fakultatiboen Goi mailako Kidegoko eta Espetxe Administrazioako Kidego Teknikoko eskaletako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak (berariazko osagarria: III-B, III-C, IV-A, IV-B eta IV-C) betetzeko lehiaketa orokorraren balorazio-batzordean.

Bigarren artikulua.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldiz-

2026ko martxoaren 26a, osteguna

karian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute, bi hileko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; betiere, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 13a.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.